

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Bilera bat eskatu dute Udalaren eta Mirafloreseko auzokideen artean.	Dagoeneko egin da.
Alkatetza	Kexak, aurreko bileretako Gaien laburpena ez delako azaltzen Udalaren webgunean.	Oraingoan, uztailean argitaratu ziren bilera guztietako akta guztiak. Bertan azaltzen dira kexa, iradokizun eta proposamen guztiak zein emandako erantzunak.
Alkatetza	Eskatu dute aztertzeko San Juan kalea Ardantzako 1 zenbakiarekin lotzen duen igogailuko kuota ez ordaintzea eta erabilera publikora pasatzea.	Martxoaren 17an aukeztu zen dekretua eta haren arabera igogailua titulartasun publikokoa izatera pasatu da. Igogailua publikoa da eta herritar guztiei irekita dago.
Alkatetza	Eskatu dute Udalaren balorazioa, trafikoaren antolaketari buruz Legarren egin den inkestaren inguruan.	Miguel de los Toyos alkateak esan duenez, parte-hartzea ona izan zen, eta inkestatik atera ziren datuen arabera, %70ek beheranzko noranzkoaren alde egin zuen; %20k, berriz, goranzko aukera nahiago zuen. Horrela, trafikoa beheranzko noranzkoan hasi zen.
Alkatetza	Galdetu dute ea azertu den Legarreko eskailera mekanikoak estaltzeko aukera.	Aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta, plan berri bat egingo da eskailerak estaltzeko. Ez dago aurreikusita eskailerak estaltzea 2016 urtean eta ezta 2017an ere. Diru-laguntzaren bat bideratzen bada horretarako, estaltzen joango dira pixkanaka.
Alkatetza	Auzokide batek zalantzan jarri du Legarre Behean mutiloiak jartzeko beharra.	Udalak beharrezkoak ikusten ditu mutiloiak eremu horretan, ikusi delako, libre utziz gero, ibilgailuek bertan aparkatzen dutela.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Auzokide batek eskatu du Legarre Gain 8. zenbakirako sarbidea hobetzeko; izan ere, hark dioenez ez dago eraikin horretarako sarbiderik eta horrek komunikazio-arazo handiak eragiten ditu inguruan.	Eskaera aztertu da, baina ezin da arrapalarik egin eskailerak ordezkatzeko. Igogailu publikoa jartzeko, berriz, derrigorrezkoa litzateke igogailu horrek etxebizitza kopuru gutxienerako bati zerbitzua ematea, eta kasu honetan ez da baldintza hori betetzen.
Obrak	Itzioko goiko partean bibirilgune bat egitea proposatu du.	Kontua aztertu da eta zera ondorioztatu da: alde batetik, ez dago lekurik, eta , bestetik, uste da ez dagoela justifikatuta inguru horretan biribilgunea jartzea.
Obrak	Auzokide batek kexa hau adierazi du: Egoitzatik gertu dagoen semaforoak koloreak lekuz aldatuta dauzka.	Konpondu zen, koloreak ondo jarrita.
Obrak	Mekolako aldapa berriz ere asfaltatzeko eskatu dute. Nahiko egoera txarrean dago.	Ez da aurreikusten aurten, 2016 urtean, asfaltatzea. Hurrengo urterako, 2017, aztertuko da.
Obrak	Kexak adierazi dituzte, pasealeku berriko obrak egitean eragindako eragozpenengatik. Udala gehiago arduratu behar zen auzokideengatik.	Obra konplexua izan da eta ahaleginak egin dira horrelako obra batek sortzen dituen eragozpenak ahalik eta txikiak izan zitezten. Obra zatika egin da eta horrek lanak egiteko epea luzatu egin du.
Obrak	Kexa adierazi du Arrate-bide 16-18 zenbakietako espaloia egiteko lanak inprobisatu egin direlakoan.	Trenbidea bikoiztu zeneko obrekin batera egin zen espaloia eraitsi egin zen, eta beste bat egin zen proiektua inguruko auzokideekin adostu ondoren.
Obrak	Eskatu dute zakarrontziak jartzeko trenbidearen gaineko pasealekuaren zati berrian.	Otsailean jarri ziren.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Eskatu dute kalea berriz ere osorik asfaltatzea zoladura irristagaitzarekin. Azpimarratu dute Miraflores auzoko irteerako zatia; izan ere, berritu zenean zementuzko zoladura utzi zen, tratamendu irristagaitzik gabe.	2015ean, beheko parteak asfaltatu zen tratamendu irristagaitzarekin, eta, aurten, 2016 urtean, aurreikusten da gunerik hondatuenak asfaltatzea.
Obrak	Oinezkoentzako pasabide bat eskatu dute Miraflores auzoko irteeran, kontrako aldeko espalaira arriskurik gabe joan ahal izateko.	Gipuzkoako Foru Aldundian eskaera bat aurkeztu da eta proiektu bat dago espaloi bat egiteko eskuin aldetik jaisten. Azaroaren 14ko astean hasiko da egiten.
Udaltzaingoa	Auzokide baten kexa da Itzio inguruan trafiko-seinaleak oso baxu daudela. Esaten du ordutegiaren kartela duen Udalbus seinalea oso behean dagoela eta oinezkoek jotzeko arriskua dagoela.	Arrate-Bide inguruan, Legarretik Itziora, ez dago bajuegi egoteagatik oinezkoentzat arriskutsua den trafiko-seinalerik. Hesiaren alboan informazio seinale bat ipinita dago, baina ez du arriskurik sortzen oinezkoentzat. Udalbus-en informazioa ondo kokatuta dago, ezin baitira altugo jarri, bestela, ez liratekelako irakurriko. Derrigorrezko norabidea adierazten duen seinaleak ez du arriskurik sortzen –edo behintzat zutabeak sortzen duen arrisku berbera-, oinezkoen pasabidearekin orientatuta dagoelako.
Udaltzaingoa	Kexak Mekola 5-6 inguruan egiten den botiloiaetatik, batez ere asteburuetan.	Ostiral, larunbat, igande eta jai egunetako arratsalde eta gauetan Mekola kalean botiloia kontrolatzen da.
Udaltzaingoa	Mirafloreseko auzokide batek eskatu du Udaltzaingoa saihestu dezala, bere zaintza-ibilbideetan, zaborrak, txatarrak eta beste material batzuk pilatzea auzoko gunen batzuetan.	Mirafloreseko gunen publikoetan ez dago txatarra pilaketarik. Udaltzainak egon ziren txatarra biltzen zuenarekin eta gaur egun ez dago ezer.
Udaltzaingoa	Eskatu dute zehazteko non aparkatu daitekeen eta non ez.	Aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen seinaleak jarri dira.
Udaltzaingoa	Eskatu dute aztertzeko Legarreko beheko partean zirkulazioa bi noranzkotan ipintzea.	Errei bakarra egonda, ezin da bi noranzko zirkulazioa jarri.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Kexak Legarreko trafikoaren antolaketaren inguruko inkesta egitean presaka aritzeagatik.	Inkesta modu errazean eta ulergarrian aurkeztu zen, auzokide gehienek parte har zezaten. Legarreko inkesta urriaren 22an eta 23an banatu zen etxebizitzetan. Inkesta betetzeko epea azaroaren 2ko, astelehena, 23:59etan amaitu zen; 10-11 eguneko epea gutuna 22an edo 23an postontzian bota zela kontuan izanda.
Zerbitzuak	Eskatu dute sastrakak garbitzeko Arrate Bide 20ko eskaileretan.	Urrrian egin zen.
Zerbitzuak	Eskatu dute farola bat konpontzeko Arrate Bide 18an (ez du funtzionatzen).	Lan-agindua egin zen, eta bai farola hori, bai kale bereko beste bi, 2016ko urtarrilaren 13an konpondu ziren.
Zerbitzuak	Mendialdetik Miraflores auzoko kaleetara ateratzen diren sastrakak kentzeko eskatu dute, eta mantentze-lanak sarriago egin daitezten.	Sastraka guztiak kendu dira.
Zerbitzuak	Erreta dauden hainbat farola konpontzeko eskatu dute. Farola horiek Legarre Gain 9ko dorrearen beheko partetik Arrate Bide 5-7-9ra doan pasabidean daude.	Lan-agindua egin zen, eta 2015eko abenduaren 22an konpondu ziren.
Zerbitzuak	Legarre gain 11ko iturria libratzeko eta oinarrian duen ur-ihes txikia konpontzeko eskatu dute.	Lan-agindua egin zen, eta Udaleko Brigadak konpondu zuen.
Zerbitzuak	Eskatu dute argiteria konpontzeko eta mantentze-lanak egiteko.	Oso kexa orokorra da; hala ere, lan-agindua egin zen elektrizistek ingurua berrikusi zezaten. Argi-puntu batzuk konpondu zituzten Arrate Biden, Legarren eta Legarre Gainen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Beira birziklatzeko edukiontzi bat jartzeko eskatu dute.	Zehaztu beharko litzateke zein lekutan nahi den jartzea, informazio hori izan gabe ezin baita beharren azterketa egin. Beira-edukiontzien gaur egungo kokalekuaren gaineko informazioa ematen dugu (4):Dorrearen ondoanArrate Bide 17ko garajeen ondoanArrate Bide 2 ondoanSan Andres Egoitza ondoan
Zerbitzuak	Telebista-seinalearen inguruko informazioa eskatu dute. Etxebizitza batzuetan arazoak dituztela adierazi dute.	Antenen eta telebista-seinalearen gaia ez da udal-eskumenekoa. Kontu honetaz hitz egin da auzokideekin eta haiek jakinaren gainean daude. Itelazpik Telebistaren banaketa-seinalea hobetu zuen, auzokideek beren eraikinetan antenak jartzeko eta, horrela, telebista-seinalea jasotzeko.
Zerbitzuak	Eskatu dute kale-garbiketa kale osoan egiteko. Esaten dute, ordurarte, ez dela garbitu 9. zenbakitik gora.	Mankomunitateak adierazi du garbitu duela. Gainera, udal brigadas garbiketa egin du presiozko-ur makinarekin uztailean Legarre auzoan.
Zerbitzuak	Arekak eta estolda-zuloak garbitzeko eskatu dute, batez ere udazkenean.	Arekak eta estolda-zuloak urtean behin garbitzen dira, hain zuzen ere, bideak garbitzen dituen sastraka kentzeko Debemenen makina pasatu ondoren.
Zerbitzuak	Arrate Bide 17B etxeko bizilagunek garajeetan dituzten hezetasunen inguruan aurkeztutako kexa. Hezetasun-arazoa dute duela urte batzuk Mankomunitateak hodiak libratzeko egindako lan batzuetan hodiak apurtu zirenetik.	Estolda-zuloak konpondu egin ziren bizilagunek hala eskatuta 2014ko urrian. Ondoren, Mankomunitateak garbiketa ugari egin ditu.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Arrate Bide 16ko eskailera-atalak hobeto garbitzeko eskatu dute.	Abisua Mankomunitatera bideratu da. Mankomunitateak esan du hemendik aurrera kontuan hartuko dutela gune honek garbiketa sakonagoa behar duela eta sarriago pasatuko direla.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du olio birziklatzeko edukiontzia jartzeko.	Legarreko 19. Zenbakian edukiontzi bat dago eta horrekin nahikoa dela uste da.